

ATLETISMOAREN KULTURA

LEHIAKETAREN OINARRIAK FICA-DONOSTIAKO NAZIOARTEKO ATLETISMO ZINEMALDIA 2018

Donostia 2018ko Nazioarteko Atletismo Zinemaldia

Oinarri hauek ikus-entzunezko piezen inskripzioa eta partaidetza zuzentzen dituzte FICA-DONOSTIAKO NAZIOARTEKO ATLETISMO ZINEMALDIA 2018 lehen edizioan.

Ikus-entzunezko lan bat ZINEMALDIAN inskribatzean, inskripzioa egiten duen pertsona fisikoak edo juridikoak (aurrerantzean "AURKEZLEA") espresuki eta erreserbarik gabe onartzen ditu OINARRI hauek.

Gainera, ZINEMALDIAN inskribatzean, AURKEZLEAK adierazi egiten du lanaren gainean nahiko ustiapen-eskubideren titularra dela. Hala, Jabetza Intelektualari dagokionez indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, eskubide horiek ahalmena ematen diote (I) lana ZINEMALDIAN inskribatzeko, eta (II) hirugarrenak edozein izanik ere haiei behar den baimena ematekolan hori erreproduzitzeko, jendaurrean ezagutzera emateko, aldatzeko, bikoizteko edota azpitolatzeko, eta baita lana ustiatzeko beste edozein modu baliatzeko ere.

Ondorioz, AURKEZLEA izango da erantzule Jabetza Intelektualaren inguruan edozein hirugarrenek planteatu ahal izango lizkiokeen erreklamazioen aurrean, eta ez dio kalterik ekarriko ZINEMALDIARI horren inguruan egon daitezkeen erreklamazioen aurrean.

LEHIAKETAN ONARTUA IZATEKO

FICA 2018ko hautaketa honetan sartu ahal izateko, ikus-entzunezko piezek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

- Gaiak atletismoari buruzkoa izan behar du, bere edozein aldaeratan eta modalitatetan: pistako atletismoa diziplina olinpiko guztietan eta IAAFek araututakoetan –running, cross, trailrunning, maratoia, herri-lasterketak eta abar–. Generoa fikzioa edo dokumentala izan daiteke.

- 2010ko urtarrilaren 1aren ondoren egina izan behar du.

- Ezin dira online dohain ikusi.

- Film laburra edo film luzea izan daiteke, eta 120 minutu iraungo ditu gehienez.

- Antolatzaileek beretzat gordetzen dute lehiaketan kategorია bat baino gehiago sortzeko eskubidea, azkenean hautatu diren lanen arabera.

- Inskripziorako epea zabalik egongo da **ekainaren 10etik irailaren 23ra**.

- Inskripzioa bide hauetatik **bakarrik** egin daiteke:
 - **MoviBeta (movibeta.com)**
 - **Festhome (festhome.com)**
 - **Reelport (reelport.com)**
 - **Filmfreeway (filmfreeway.com)**

Ez da lanik onartuko hauek ez diren beste bide batetik iristen bada.

FICA 2018 SARIAK

EPAIMAHAIAREN LEHENENGO SARIA: 2.000 euro eta Urrezko Aquiles-a.

FICAk epaimahai bat izendatuko du, zinean edota atletismoan adituak diren 3 kidek gutxienez osatua, eta epaimahaiak hautatuko du bere iritziz zinemaldian den piezarik onena.

EPAIMAHAIAREN BIGARREN SARIA: Zilarrezko Aquiles-a.

FICAk epaimahai bat izendatuko du, zinean edota atletismoan adituak diren 3 kidek gutxienez osatua, eta epaimahaiak hautatuko du bere iritziz zinemaldian den piezarik onena.

EPAIMAHAIAREN HIRUGARREN SARIA: Bronzezko Aquiles-a.

FICAk epaimahai bat izendatuko du, zinean edota atletismoan adituak diren 3 kidek gutxienez osatua, eta epaimahaiak hautatuko du bere iritziz zinemaldian den piezarik onena.

PUBLIKOAREN SARIA: 1.500 euro eta Akiles.

Publikoak bozketa bidez emango du saria. Lortutako puntuazio guztien baturaren eta bozketan parte hartu duten ikusleen kopuruaren artean egindako zatiketaren emaitza izango da pieza bakoitzaren puntuazioa.

BAIMENAK

ZINEMALDIAN inskribatzean, lehiaketarako onartua izan den edozein piezaren AURKEZLEAK espresuki ematen dio baimena ZINEMALDIARI ekintza hauek burutzeko:

- Pieza erreproduzitzea, bistaratzea eta proiektatzea jendaurrean izango diren erakustaldietan, behar adina aldiz ZINEMALDIAN parte hartzen ari den bitartean.
- Pieza behar diren formatuetara egokitzea, ZINEMALDIAN bistaratu eta erakusteko.
- Pieza azpigitulatzeko behar diren formatuetan, jatorrizko ez den beste hizkuntza batzuetan, ZINEMALDIAN bistaratu eta erakusteko.
- Piezaren irudiak edota zatiak erabiltzea ZINEMALDIAREN prentsako dossierretan, informaziozko karteletan edota web orrian, ZINEMALDIAREN beraren promozio lanak egiteko.

Aurretik aipatutako baimena nahitaezko baldintza da piezak ZINEMALDIAN parte hartzea ziurtatzeko, eta inolako kontraprestazio ekonomikorik gabe AURKEZLEAREN alde.

DATUEN BABESA

Abenduaren 13ko 15/1999 Legean, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoan ezarritakoarekin bat etorriz (aurrerantzean “LOPD”), AURKEZLEARI jakinarazten zaio ZINEMALDIAN pieza inskribatzean emandako datuak, eta aurrerantzean emandako beste edozein ZINEMALDIAN piezak duen parte hartzearekin lotua, FICA titularra den fitxategi batean sartuko direla tratatzeko, ZINEMALDIAN piezaren parte hartzea kudeatzeko eta ezagutzera emateko xedez.

Datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa ematea derrigorrezkoa izango da, eta halakorik eman ez izanak edo oker eman izanak eragotzi egingo du piezak ZINEMALDIAN duen parte hartzea kudeatu ahal izatea.

Emandako datu pertsonaletan sor daitekeen edozein aldaketa fitxategiaren arduradunari jakinarazi beharko dio datu horien titularrak, eta betiere bera izango da erantzulea uneoro emandako datuen egiazkotasunaren eta zehaztasunaren

aurrean. Datuak hirugarrenei ematen zaien kasu guztietan, AURKEZLEAK adierazten du datu horien titularren baimena duela aipatutako jakinarazpen horretarako.

Datuetan sartu, zuzendu, ezabatu edo ukatzeko eskubideak erabili nahi izanez gero, AURKEZLEAK edota beste edozein interesatuk idatziz eta LOPDean ezarritako terminoetan eta baldintzetan bidali behar du jakinarazpen bat sinaduraren helbidera.

FICA Nazioarteko Atletismo Zinemaldia

Errotaburu pasealekua 1,1B, 5. zk. bulegoa, 20018 Donostia-San Sebastián (SPAIN)

639136125.jsabadie@ficafestival.com

www.ficafestival.com